

AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Oposaketak eta lehiaketak

HEZKUNTZA SAILA

5010

AGINDUA, 2024ko urriaren 25ekoa, Hezkuntzako sailburuarena, deialdia egiten duena Hezkuntza Administrazioaren zerbitzura dauden ikuskatzaileen kidegoetako funtzionarioen eta Hezkuntzako ikuskatzaileen estatu mailako lekualdatze-lehiaketarako, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioari atxikitako Hezkuntzako Ikuskaritzako lanpostuak betetzeko.

Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoaren 6.3 xedapen gehigarrian ezarritako aurreikuspenen arabera, urriaren 29ko 1364/2010 Errege Dekretuak, Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoan bildutako irakasleen kidegoetako funtzionarioen arteko estatu mailako lekualdatze-lehiaketak eta haiek bete beharreko plazen beste hornikuntza-prozedura batzuk arautzen dituenak, betebeharrak ezartzen die Hezkuntza Administrazioei, hau da, bi urtez behin estatu mailako lekualdatze-lehiaketak iragartzea. Lehiaketa horietan karrerako funtzionario diren irakasle guztiak parte har dezakete, edozein dela ere dagokien Hezkuntza Administrazioa edo sartzeko bide eman diena, baldin eta horretarako eskakizunak betetzen badituzte, betiere. Hala, interesdunek ekintza bakarraren bitartez parte hartu ahal izango dute lehiaketa guztietan, eta, horien ebazpenaren ondotik, destino bakarra lortuko dute kidego bakoitzean.

Urriaren 1eko EFD/1056/2024 Aginduaren bidez ezartzen da zer prozedura-arau aplikatuko den Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoan bildutako irakasle-kidegoetako funtzionarioentzat 2024-2025eko ikasturtean iragarri behar diren estatu-mailako lekualdatze-lehiaketetan (lege organiko hura, bide batez esanda, abenduaren 29ko 3/2020 Lege Organikoak aldatu zuen).

Horrenbestez, aipatutako araudian xedatuaren babesean, eta Hezkuntzako Ikuskaritzan lanpostu hutsak daudenez, hau

EBAZTEN DUT:

Artikulu bakarra.– Deialdia.

1.– Estatu mailako lekualdatze-lehiaketarako deialdia egiten da Hezkuntza Administrazioaren zerbitzura dauden ikuskatzaileen kidegoetako funtzionarioentzat eta seigarren, zazpigarren eta zortzigarren oinarrietako egoeretan dauden Hezkuntzako ikuskatzaileentzat.

2.– Deialdi hori arautuko duten oinarriak onartzen dira.

AZKEN XEDAPENETAKO LEHENENGOA.– Ondorioak.

Agindu honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera izango ditu ondorioak.

AZKEN XEDAPENETAKO BIGARRENA.– Errekurtsoak.

Agindu honen aurka, aukerako berraztertze-errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Hezkuntzako sailburuari, hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izango da administrazioarekiko auzien epaitegian, bi hilabeteko epean, agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko urriaren 25a.

Hezkuntzako sailburua,
MARÍA BEGOÑA PEDROSA LOBATO.

OINARRIAK

AURKIBIDEA

- I. kapitulua.– Oinarri orokorrak.
 - II. kapitulua.– Eskakizunak eta parte-hartzearen ezaugarriak.
 - III. kapitulua.– Borondatezko parte-hartzea.
 - IV. kapitulua.– Nahitaezko parte-hartzea.
 - V. kapitulua.– Herri edo barruti baterako lehentasun-eskubidea.
 - VI. kapitulua.– Parte hartzeko eskabideak.
 - VII. kapitulua.– Merezimenduen baremoa aplikatzea.
 - VIII. kapitulua.– Prozeduran onartua izateari eta puntuazioa emateari buruzko ebazpenak.
 - IX. kapitulua.– Destinoak esleitzea, uko egitea eta lanpostuaz jabetzea.
 - X. kapitulua.– Datu pertsonalak.
- I. eranskina.– Ikastetxeen zerrenda.
 - II. eranskina.– Merezimenduen baremoa.
 - III. eranskina.– Eskabidea.
 - IV. eranskina.– Lurraldean eta hizkuntza-eskakizunen kodeak.

OINARRIAK

I. KAPITULUA

OINARRI OROKORRAK

Lehenengoa.– Deialdia.

1.– Hezkuntzako ikuskaritzaileen eta Hezkuntza Administrazioaren zerbitzura dauden ikuskaritzaileen kidegoetako karrerako eta praktiketako funtzionarioen estatu mailako lekualdatze-lehiaketarako deialdia egiten da.

2.– Lehiaketa honetan, xedapen hauek bete behar dira: 2/2006 Lege Organikoa, maiatzaren 3koa, Hezkuntzari buruzkoa; 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 30ekoa, Enplegatu Publikoaren Oinarriko Estatuaren Legearen testu bategina onartzen duena; 30/1984 Legea, abuztuaren 2koa, Funtzio Publikoa Eraldatzeko Neurriei buruzkoa (aipatutako estatutua arau bidez garatu arte indarrean jarraitzen duten artikulua); 4/2023 Legegintzako Dekretua, irailaren 21ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitatez kanpoko irakaskuntzako irakasleen kidegoei buruzko Legearen testu bategina onartzen duena; 1364/2010 Errege Dekretua, urriaren 29koa, Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoan bildutako irakasleen kidegoetako langile funtzionarioen arteko estatu mailako lekualdatze-lehiaketak eta haien bete beharreko lanpostuen beste hornikuntza-prozedura batzuk arautzen dituena, uztailaren 16ko 677/2024 Errege Dekretuak aldatua; 343/2001 Dekretua, abenduaren 11koa, Hezkuntzako Ikuskaritzako lanpostuek

izan beharreko hizkuntza-eskakizunak eta derrigorrezkotasunak zehazteko araubide espezifikoak ezartzen duena; 297/2010 Dekretua, azaroaren 9koa, Euskararen ezagutza egiaztatzen duten titulu eta ziurtagirien arteko baliokidetzak finkatu eta Hizkuntzen Europako Erreferentzia Esparru Bateratuko mailekin baliokidetzekoa (uztailaren 4ko 187/2017 Dekretuak eta apirilaren 18ko 65/2023 Dekretuak aldatua); EFD/1056/2024 Agindua, urriaren 1ekoa, 2024-2025eko ikasturtean zehar deitu behar diren estatu mailako lekualdatze-lehiaketetan aplikatzekoak diren prozedurazko arauak ezartzen dituena; 11/2022 Legea, abenduaren 1ekoa, Euskal Enplegu Publikoari buruzkoa; oro har aplikatu daitezkeen gainerako xedapenak, eta deialdi honetan xedatutakoa.

Bigarrena.– Eskaintzen diren lanpostuak.

1.– Langileen Kudeaketarako zuzendariaren ebazpen baten bidez finkatuko dira lehiaketa honetan eskaintzen diren lanpostuak behin-behinean eta behin betiko. Behin-behinean, destinoen behin-behineko esleipenaren ebazpena eman baino lehen finkatuko dira, eta, behin betiko, destinoak behin betiko esleitzeko ebazpena eman baino lehen. Ebazpen horiek hemen argitaratuko dira: Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Sailaren <http://www.euskadi.eus/eusko-jaurjaritza/hezkuntza-saila/> webgunean eta <https://hezigunea.euskadi.eus> webgunean.

2.– Eskaintzen diren lanpostuen artean, 2024ko abenduaren 31n hutsik dauden lanpostuak eta lehiaketaren ebazpena ematean geratzen direnak sartuko dira. Gainera, nahitaezko erretiroen ondorioz 2024-2025eko ikasturtea amaitu arte sortzen diren lanpostu hutsak ere sartu ahalko dira. Batzuk zein besteak hezkuntza-plangintzan haien funtzionamenduaren jarraitutasuna aurreikusita dagoenean eskainiko dira, eta ikastetxe berean irakasleen egonkortasunerako ezartzen diren irizpideen arabera.

3.– Hutsik geratzen diren lanpostuen definizioan akatsen bat egiten bada edo eskolako plangintzan aurreikusi gabeko jarraitutasuna duen lanposturen bat bada, dagokion huts-zuzenketa argitaratuko da.

II. KAPITULUA

ESKAKIZUNAK ETA PARTE-HARTZEAREN EZAUGARRIAK

Hirugarrena.– Eskakizunak.

1.– Deialdi honetan, hauek parte har dezakete: lehenengo oinarrian aipatzen diren eta urriaren 29ko 1364/2010 Errege Dekretuaren 10. artikuluan jasotako eskakizunak betetzen dituzten langileek –errege-dekretu horren bidez, Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoan bildutako irakasleen kidegoetako funtzionarioen arteko estatu mailako lekualdatze-lehiaketak eta haiek bete beharreko lanpostuen beste hornikuntza-prozedura batzuk arautzen dira–, eta deialdi honen bosgarren, seigarren eta bederatzigarren oinarrietan aipatutakoek.

2.– Eskakizunak eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunerako bete behar dira, eta destinoa behin betiko esleitu arte mantendu behar dira, seigarren oinarriko 1.1.a) eta b) letretan jasotako salbuespenekin.

Laugarrena.– Parte-hartzearen ezaugarriak.

1.– Parte hartzea nahitaezkoa izango da zazpigarren eta zortzigarren oinarrietako egoeretan.

2.– Parte hartzea borondatezkoa izango da seigarren oinarriko egoeretan.

Bosgarrena.– Hizkuntza-eskakizuna.

Abenduaren 11ko 343/2001 Dekretuaren arabera (Hezkuntza Ikuskaritzako lanpostuetarako hizkuntza-eskakizunak eta derrigortasunak ezartzeko araubide espezifikoak ezartzen duena), Hezkuntza Ikuskaritzako lanpostu guztiek 2. hizkuntza-eskakizuna dute esleitua, derrigortasun-data igarota. Ondorioz, 2. hizkuntza-eskakizuna egiaztatuta eduki beharko da, edo, bestela, 2. hizkuntza-eskakizunaren mailakoaren baliokideak diren hezkuntza-ziurtagiriak, 297/2010 Dekretuak aipatzen dituenak (297/2010 Dekretua, azaroaren 9koa, Euskararen jakite-maila egiaztatzen duten tituluak eta ziurtagiriak baliokidetu, eta Hizkuntzen Europako Erreferentzi Marko Bateratuko mailekin parekatzeko dena, zeina apirilaren 18ko 65/2023 Dekretuak aldatu baitzuen).

III. KAPITULUA

BORONDATEZKO PARTE-HARTZEA

Seigarrena.– Borondatezko parte-hartzea.

1.1.– Deialdi honetan eskaintzen diren lanpostuetan borondatez parte hartu ahal izango dute Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailari atxikita dauden karrerako funtzionarioek, baldin eta egoera hauetako batean badaude:

- a) Zerbitzu aktiboan, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailari atxikita dauden Hezkuntzako Ikuskaritzako lanpostuetako batean eta behin betiko destinoarekin, baldin eta, aurtengo ikasturtearen amaierarako, gutxienez bi urte iragan badira behin betiko azken destinoaz jabetu zirenetik.
- b) Aitortutako zerbitzu berezietan, Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Sailari atxikita dauden Hezkuntzako Ikuskaritzako lanpostuetako batean, baldin eta, aurtengo ikasturtearen amaierarako, gutxienez bi urte iragan badira behin betiko azken destinoaz jabetu zirenetik.
- c) Aitortutako borondatezko eszedentzian, Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Sailari atxikita dauden Hezkuntzako Ikuskaritzako lanpostuetako batean, eszedentzia mota edozein dela ere.

Enplegatu Publikoaren Oinarriko Estatutuaren Legearen testu bateginaren 89.1 artikuluko a) eta b) letretan aurreikusitakoaren arabera (urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartu zen testu bategin hori), norbere interesagatik edo familiaren interesagatik borondatezko eszedentzian dauden funtzionarioek, parte hartu ahal izateko, ezinbesteko izango dute eszedentziara igaro zirenetik bi urte iragan izana ikasturte honen amaierarako.

d) Aitortutako eginkizun-gabetzean, Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Sailari atxikita dauden Hezkuntzako Ikuskaritzako lanpostuetako batean, baldin eta aurtengo ikasturtea amaitzen denean eginkizun-gabetzeko diziplina-zigorren iraunaldia bukatu bada eta gutxienez urte bi pasatu badira behin betiko azken destinoaz jabetu zirenetik.

1.2.– 1.1 apartatuan aipatzen diren parte-hartzaileek, era berean, gainerako hezkuntza-administrazioek egindako deialdietako lanpostuak eska ditzakete, bakoitzaren oinarrietan ezarritako irizpideei jarraikiz.

2.– Beste hezkuntza-administrazio batzuei atxikitako funtzionarioak:

Deialdi honetako plazak eskatu ahalko dituzte beste hezkuntza-administrazio batzuei atxikitako funtzionarioek, baldin eta agindu honetan ezarritako eskakizunak eta baldintzak betetzen badituzte. Funtzionario horiek hautatuak izan ziren deialdiko Hezkuntza Administrazioaren kudeaketa-eremuan lortua izan behar dute lehenengo behin betiko destinoa, deialdi horretan eskakizun hori bete beharra ezartzen ez zenean izan ezik.

Langile horiek eskabide-ereduaren arabera bete behar dute parte hartzeko eskabidea, eta beren destinoari dagokion Hezkuntza Administrazioak egindako deialdian zehazten den organoan.

IV. KAPITULUA

NAHITAEZKO PARTE-HARTZEA

Zazpigarrena.– Nahitaezko parte-hartzea.

Lehiaketa honetan nahitaez parte hartu behar dute egoera hauetako batean dauden funtzionarioek:

a) Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Sailari atxikita dauden Hezkuntzako Ikuskaritzako lanpostuetan 2024-2025eko ikasturtean behin-behineko destinoa duten funtzionarioek.

Lehiaketa honetan parte hartzen ez badute, edo parte hartuta ere nahikoa lanpostu huts eskatzen ez badute, ofizioz eman ahalko zaie behin betiko destinoa Hezkuntzako Ikuskaritzako zentroetan, behin-behinean diharduten lurralde historikoko ikastetxeetan, I. eranskinean ikuskaritza-zentroak argitaratuta dauden hurrenkerari jarraituz.

b) Eszedentziatik etorrira edo destinoko behin betiko lanpostua galtzea eragin dion eginkizun-gabetzetik etorrira eta deialdi hau argitaratzen den eguna baino lehen zerbitzu aktibora itzuli diren eta itzulera hori dela-eta Hezkuntza Sailaren kudeaketa-eremuren batean behin-behineko destinoa lortu duten funtzionarioek.

Lehiaketa honetan parte hartzen ez badute, edo parte hartuta ere nahikoa lanpostu huts eskatzen ez badute, behin-behinean diharduten lurralde historikoan dauden ikastetxeetan eman ahalko zaie, ofizioz, behin betiko destinoa, I. eranskinean ikuskaritza-zentroak argitaratuta dauden hurrenkerari jarraituz, edo, bestela, destinoa eman zain geratuko dira.

c) Nahitaezko eszedentzian edo destinoko lanpostua galtzea eragin dien eginkizun-gabetze irmoan dauden funtzionarioek, zigorra bete eta gero behin-behinean itzultzerik lortu ez badute eta egoera horietan Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Sailari atxikitako ikastetxeren batean deklaratu bazituzten.

Lehiaketa honetan parte hartzen ez badute edo parte hartu arren behar beste lanpostu eskatzen ez badute eta behin betiko destinorik lortzen ez badute, borondatezko eszedentzian geldituko dira, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bateginaren 89.1.a) artikuluan aurreikusten den moduan (urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartu zen testu bategin hori, bide batez esanda).

d) Epai bat beteta, errekurtsio bat ebatzita edo behin betiko betetzen ari zen lanpostua ezabatuta behin betiko destinoa galdu duten funtzionarioek.

Parte hartzen ez badute, ofizioz esleitu ahal izango zaie behin betiko destinoa, behin-behinean zerbitzuak ematen dituzten lurralde historikoaren barruan, galdegiten diren eskakizunak betetzen dituzten lanpostuetan jarduteko, I. eranskinean argitaratutako ikuskapen-zentroen hurrenkerari jarraituz, kasuaren arabera.

e) Behin betiko lanpostua galduta beren kidegoan zerbitzu aktiboan jarraituz Administrazioiko beste lanpostu batzuetan hasi ziren funtzionarioek, baldin eta hura utzi eta behin-behineko destinoa lortu badute Hezkuntza Sailari atxikitako lanpostuetan.

Lehiaketa honetan parte hartzen ez badute, edo parte hartuta ere nahikoa lanpostu huts eskatzen ez badute, ofizioz eman ahalko zaie behin betiko destinoa Hezkuntzako Ikuskaritzako zentroetan, behin-behinean diharduten lurralde historikoko ikastetxeetan, I. eranskinean ikuskaritza-zentroak argitaratuta dauden hurrenkerari jarraituz.

Zortzigarrena.– Praktiketako funtzionarioen parte-hartzea.

1.– Praktiketako funtzionario izendatutako pertsonak, halakorik badago, behartuta daude lekualdatze-lehiaketa honetan parte hartzera, baita hurrengo deialdietakoetan parte hartzera ere, harik eta autonomia-erkidego honetan behin betiko lehen destinoa lortu arte.

2.– Pertsona horien destinoak esleitzeko, praktiketako funtzionario izendatzeko Hezkuntzako sailburuaren aginduan agertzen den hurrenkera-zenbakia kontuan hartuko da bakarrik. Beraz, ez dute merezimenduen egiaztagiririk aurkeztu behar.

3.– Prozesu honetan parte hartzen ez dutenei eta parte hartzen duten baina destinoa lortzen ez duten horiei praktikaldia egiten ari diren lurralde historikoko ikuskaritza-zentroetan esleituko zaie behin betiko destinoa edo, hori ezinezkoa bada, ikuskaritza-zentroetan, agindu honen I. eranskinean agertzen diren hurrenkeraren arabera.

4.– Zortzigarren oinarri honetan aipatzen diren pertsonak, aurreko apartatueta ezarritakoaren arabera behin betiko destinoa lortzen ez badute, behin-behineko destinoan geratuko dira 2024-2025eko ikasturtean praktikaldia egin duten lurralde historikoan.

5.– Dena den, legokien destinoa lortuko badute, praktikaldia gainditu behar dute eta Hezkuntzako ikuskatzaileen kidegoko karrerako funtzionario izendatuak izan behar dute.

V. KAPITULUA

HERRI EDO BARRUTI BATERAKO LEHENTASUN-ESKUBIDEA

Bederatzigarrena.– Egoerak eta baldintzak.

Herri edo barruti bateko ikastetxeetan behin betiko destinoa lortzeko lehentasun-eskubidea izango dute hemen adierazten diren egoeraren batean dauden eta ezarritako baldintzak betetzen dituzten parte-hartzaileek, zerrendan jasota dauden hurrenkeran:

a) Ikastetxe batean betetzen zuten behin betiko lanpostua ezabatu edo aldatzen denean, beste behin betiko destino bat lortu arte, eskubidea izango dute lanpostu bat lehentasunez lortzeko plaza edo lanpostua ezabatu den herri bereko beste ikastetxe batean edo, hala badagokio, lanpostua ezabatu den ikastetxea dagoen barrutiko beste ikastetxe batean.

b) Behin betiko betetzen zuten irakasle-lanpostua galduta Administrazio publikoan beste lanpostu bat betetzen hasi direnek, baldin eta azken lanpostua utzi badute.

c) Senitartekoak edo seme-alabak zaintzeko borondatezko eszedentzia eskuratu zuten eta aurrez betetzen zuten behin betiko lanpostua aplikatu beharreko araudiak lanpostua gordetzeko zehaztutako aldia amaitzeagatik galdu dutenek, zerbitzu aktibora itzuli nahi badute edo behin-behinean itzuli badira (borondatezko eszedentzia hori Enplegatutako Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bateginaren 89.1.c) artikuluan aurreikusita dago, bide batez esanda, eta testu bategin hori urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartu zen).

d) Epai bat beteta edo administrazio-errekurtso bat ebatzita behin betiko lanpostua galdu dutenek.

e) Ezintasun iraunkorraren ondorioz erretiroa aitortuta eduki ondoren zerbitzu aktiborako birgaitu diren funtzionarioek.

Aurreko apartatuetan adierazitako egoeretan karrerako bi funtzionario edo gehiago daudenean, merezimenduen baremoan puntuazio altuena lortzen duenari esleituko zaio lanpostua. Puntuazioaren guztizkoan berdinketarik gertatuz gero, baremoaren apartatu bakoitzeko puntuazio altuenari hurrenez hurren begiratzuz eta apartatuek baremoan duten hurrenkera kontuan hartuz ebatziko da. Hala ere, berdinketak bere horretan jarraitzen badu, azpiapartatuetan lortutako puntuak hartuko dira aintzat, baremoan agertzen diren hurrenkerari jarraituz. Bi kasuotan, apartatu bakoitzean kontuan izango den puntuazioa ezin izango da izan baremoan apartatu bakoitzerako finkatutako puntuaziorik altuena baino handiagoa, ezta, azpiapartatuen kasuan, azpiapartatu horiei dagokien apartatuak daukan puntuaziorik altuena baino handiagoa ere. Irizpide horiek aplikatzean azpiapartatu bat edo gehiago beren apartatuaren puntuaziorik altuenera iristen badira, ez dira kontuan izango gainerako azpiapartatuetako puntuazioak. Beharrezkoa bada, kidegoan sartzeko erabilitako hautaketa-prozeduraren urtea eta hautatua izateko lortutako puntuazioa erabiliko dira berdinketa apurtzeko irizpide gisa.

Apartatu honetan adierazitako egoeretan egonda lehentasun-eskubidez baliatu nahi duten funtzionarioek kidegoan behin betiko destinoa izandako azken herri edo barrutirako erabili ahal izango dute.

Herri edo barruti baterako lehentasun-eskubideren batez baliatzen diren parte-hartzaileek hau adierazi beharko dute parte hartzeko eskabidean:

1.– «Herri edo barruti baterako lehentasun-eskubidea baliatuz gero bete beharrekoa» epigrafean, eskubidea erabili nahi den herri edo barrutiaren kodea adierazi behar da, bai eta lehentasun-eskubidea izateko arrazoia ere.

2.– Jarraian, eskubide horretaz baliatzeko espezialitatearen (plaza mota) eta hizkuntza-eskakizunaren (bertako hizkuntza) kodea bete behar da. Lehentasun hori herria, espezialitatea eta hizkuntza-eskakizuna eta derrigortasun-data erreserbatzeko kontuan hartuko da.

3.– Ikastetxe jakin bat lortzeko, lehentasun-ordenaren arabera, «Eskatzen diren plazak» epigrafean, eskubidez dagozkion herriko ikastetxe guztiak adierazi behar dira, eta, barrutiko lehentasun-eskubidea izanez gero, aukeran eskatutako herrietako ikastetxe guztiak, herrien bloke homogeneousotan multzokatuta. Herriaren kodea bakarrik adieraziz gero, lanpostuak hutsik dituzten bertako edozein ikastetxetan emango zaio destinoa. Aitzitik, ez baditu eskatzen eskubidez dagozkion herriko ikastetxe guztiak, edo, barrutiko lehentasun-eskubidea izanda, aukeran eskatutako herrietako ikastetxe guztiak, lanpostu hutsak dituzten herri horietako gainerako ikastetxeetan eman ahal izango zaio destinoa, I. eranskinean jasotako zerrendaren hurrenkeran.

Herri edo barruti bateko lehentasun-eskubidez baliatuta herriaren eta hizkuntza-eskakizunaren erreserba lortu ostean, lekualdatze-lehiaketan lehentasun-eskubiderik gabe parte hartzen duten gainerakoekin lehiatuta lortuko dute destinoa ikastetxe jakin batean, baremoan lortutako puntuazioaren arabera.

VI. KAPITULUA

PARTE HARTZEKO ESKABIDEAK

Hamargarrena.– Eskabideak.

1.– Parte-hartzaileek eskabide bakarra aurkeztu behar dute, III. eranskinean ageri den ereduaren arabera.

Eskabidea helbide honetan bete behar da: <https://hezigunea.euskadi.eus>. Ondoren, idatzi erabiltzailea eta irakasleen posta elektronikoaren (Hezigunea) pasahitza, edo, hori eduki ezean, NAN zenbakia eta aipatutako gunera sartzeko pasahitza. Sartzeko pasahitza ahaztuz gero, hori berreskuratzeko bidea dago aipatutako helbidean, «Pasahitza ahaztu zait» apartatuan.

Pasahitza sartu ostean, gunea honetara jo behar da: Ikuskatzaileen Lekualdatze-lehiaketa – Onarpen-eskabidea – Eskabidea onartzea.

2.– Eskabidea, osorik bete ondoren, sinatu eta eskaneatu egin beharko da, eta "Aztertu" bidez erantsi. Ondoren, merezimendu bat edo batzuk baloratzea nahi baduzu, aipatutako helbide horretan bertan (<https://hezigunea.euskadi.eus> –Ikuskatzaileen Lekualdatze-lehiaketa – Onarpen-eskabidea – Eskabidea onartzea) DOKUMENTUAK izeneko esteka bat aurkituko duzu. Merezimenduak "Aztertu" aukeraren bidez erantsi beharko dituzu.

3.– Lanpostuak «Eskatzen diren lanpostuak» epigrafean eskatu behar dira; ikastetxe eta/edo herri jakin baterako eska daitezke, eta bi modalitateak bateragarriak dira. Azken kasu horretan, lanpostu hutsa edo hutsik geratutakoa duen herriko lehen ikastetxea esleituko da, oinarri hauen I. eranskinean adierazitako hurrenkera berean. Lanpostu-eskabide bakoitza zentroaren eta/edo herriaren, espezialitatearen, bertako hizkuntzaren (hizkuntza-eskakizuna – IV. eranskina ikusi) batuketaren edo konbinazioaren emaitza da.

4.– Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Sailari atxikitako ikuskatzaileen kidegoetako karrerako funtzionarioek, lanpostu-eskaeran, beste hezkuntza-administrazio batzuek egindako deialdietako lanpostuak gehitu ditzakete, deialdi horiek ezartzen dituzten irizpideei jarraikiz, baldin eta lehenengo behin betiko destinoa Hezkuntza Sail horren kudeaketa-eremuan lortu bazuten, salbu eta sartzeko baliatutako deialdiak ez zirenean ezarri eskakizun hori bete beharra.

Langile horiek beren hobespenen arabera eskatuko dituzte lanpostuak, eskuratu nahi dituzten herrien edo zentroen kodeak eta lanpostu motarenak (espezialitatea) eta bertako hizkuntzarenak (hizkuntza-eskakizuna) ezarriz, agindu honen eranskinetan agertzen diren moduan, eta, hala badagokio, deialdiak egiten dituzten beste hezkuntza-administrazio batzuen lekualdatze-lehiaketen deialdien eranskinetan ageri diren moduan.

5.– Eskabideak oinarri hauen I. eranskinean ageri diren ikuskaritza-zentroetan egin beharko dira.

6.– Edonola ere, zehazki parte-hartzaileek eskabideetan adierazitako kodeei dagozkien lanpostuak joko dira eskatutako lanpostutzat. Eskabideetako kodeak ez badira existitzen, osatu gabeak badira edo bat ez badatoz langile parte-hartzaileak eska ditzakeen lanpostuekin, baliogabetu egingo dira eskabideok. Aurreko arrazoiengatik lehiakidearen eskabide guztiak baliogabetuko balira, lehiakidea destinoen esleipenetik baztertuko litzateke, baina horrek ez du eragozten destinoa ofizioz esleitzea deialdi honetan aurreikusten den kasuetan.

7.– «Adingabearen babes» izeneko apartatua bete beharko dute lehiakideek eskabidean, delitu hauetakoren bategatik epai irmoaren bidez ez dutela zigortu egiaztatzeko: sexu-askatasun eta -osotasunaren aurkako delituak –sexu-erasoa eta -abusua, sexu-jazarpena, exhibizionismoa eta sexu-probokazioa, prostituzioa, sexu-esplotazioa eta adingabeak galbidean jartzea– eta gizakien salerosketagatiko delituak. Apartatu hori betetzen duenean, izangaiak adierazi behar du ea baimena ematen dion Hezkuntza Sailari, hautatua izanez gero, 1/1996 Lege Organikoaren 13.5 artikuluan adierazitako ziurtagiria eskuratzeko beraren izenean. Baimenik ematen ez badio eta esleipenduna bada, Sexu Delitugileen Erregistro Zentralaren ziurtagiri bat aurkeztu beharko du, delitu horientzat ez dutela zigortu egiaztatzen duena.

Dena den, baimena lehenago eman dutenei ez zaie azalduko apartatu hau eskabidean.

Hamaikagarrena.– Merezimenduak alegatu eta egiaztatzea.

1.– Laugarren apartatuan jasotako kasuan izan ezik, lehiakideak, beharrezkoa izanez gero, puntuatzea nahi duen merezimendu guztiak aurkeztu beharko ditu, II. eranskinean (merezimenduen baremoa) bakoitzari dagokion epigrafe zehatza adierazita. Horrez gain, dagokion epigrafean adierazitako egiaztagiria erantsi behar ditu, salbu eta epigrafe horrek berariaz adierazten badu merezimendua ofizioz zenbatu daitekeela eta merezimendu hori eskatzaileari dagokion Langileen Erregistroan edo prestakuntza-jardueren erregistroan jasota badago; horretarako, 3. apartatuan adierazi bezala erregistroan jasota dagoela egiaztatu beharko du eskatzaileak. Merezimendua, Langileen Erregistroan edo prestakuntza-jardueren erregistroan jasota ez badago, helbide honetan aurkeztu behar da: <https://hezigunea.euskadi.eus> –Ikuskatzaileen lekualdatze-lehiaketa – Onarpen-eskabidea – Dokumentuak. Hamabigarren oinarriaren 2. puntuan adierazten da non aurkeztu behar diren dokumentuak.

2.– Argitalpenei dagokienez (4.1 apartatua), jatorrizko alearen orde, azalaren eta argitalpenaren lehen hamar orrialdeen kopiak aurkeztu ahal izango dira, baita ISBNaren eta egilearen datuak agertzen diren orria ere. Beharrezkoa izanez gero, argitalpena eskatuko da, geroago.

3.– Langileen Erregistroan dagoen informazioa kontsultatzeko, helbide honetara jo beharko da: <https://hezigunea.euskadi.eus> (sartu erabiltzailea eta pasahitza) – Espediente pertsonala. Eta, ondoren, apartatu hauek kontsultatu ahalko dira:

Zerbitzu-orria.

Tituluak, espezialitateak eta ziurtagiriak.

Zuzendaritza-karguak.

Prestakuntza-jardueren kasuan, hemen sartu beharko duzu: Arlo pertsonala – Nire prestakuntza.

4.– Praktikak egiten ari diren funtzionarioek ez dute aurkeztu beharko merezimenduak alegatu eta egiaztatzeko dokumenturik.

5.– Gaztelania edo euskara ez den beste hizkuntza batean emandako dokumentuekin batera, dagokion itzulpen ofiziala aurkeztu beharko da Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialeko batean, zinpeko itzultzaile batek egin edo dagokion kontsulatuak edo bulego diplomatikoak baliozkotua. Salbuespen izango dira Hizkuntzen Europako Erreferentzia Esparru Bateratuko mailak egiaztatzen dituzten hizkuntza-ziurtagiriak eta hizkuntza modernoetako espezialitatearen bateko titularrek aurkeztutako argitalpenak (4.1).

6.– Edonola ere, Administrazioak behar diren azalpen eta dokumentuak eskatu ahal izango dizkie lehiakideei, merezimenduei dagokienez sortutako zalantzak eta erreklamazioak ebazteko.

Eskatzaileak izango dira aurkeztutako dokumentuen egitasunaren erantzuleak. Dokumenturen bat faltsua bada edo manipulatuta badago, parte-hartzaileak deialdi honetan parte hartzeko eskubidea galduko du, bestelako erantzukizunak alde batera utzi gabe.

7.– Parte-hartzaileek berreskuratu ahal izango dituzte II. eranskinaren 4.1 apartatuan («Argitalpenak») balioztatzeko aurkeztu dituzten jatorrizko dokumentuak. Langileak Kudeatzeko Zuzendaritzak zehazten duen lekuan eta epean jaso ahal izango ditu, lekualdatze-lehiaketa amaitu ondoren, baldin eta parte-hartzailearen batek errekurtsorik aurkezten ez badu; halakorik egingo balu, egiaztapen edo froga gisa atxiki ahal izango dira dokumentuak.

8.– Eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunean bete beharko dira alegatutako merezimenduak. Ez dira kontuan hartuko eskabidearekin batera aurkeztu beharreko merezimenduak alegatzeko orrian alegatu ez diren merezimenduak, ez eta eskabideak aurkezteko epean agiri bidez egiaztatu ez direnak ere.

9.– Aurkeztutako eskabideak edo dokumentazioak ez baditu betetzen deialdi honetan ezarritako betekizunak, interesdunari eskatuko zaio akatsa zuzentzeko edo aurkeztu ez dituen nahitaezko dokumentuak eramateko, eta adieraziko zaio hala egiten ez badu eskaeran atzera egin duela pentsatuko dela.

Hamabigarrena.– Eskabideak eta agiriak aurkezteko epea. Dokumentazioa aurkezteko lekua.

1.– Eskabideak formalizatzeko eta dokumentuak aurkezteko epea.

2024ko azaroaren 5etik azaroaren 26ra bitartekoa izango da, biak barne, eskabideak formalizatu eta dokumentuak aurkezteko epea.

Adierazitako epe hori amaitzen denean, ez da onartuko ez eskabiderik, ez egindako eskabideetako aldaketarik, ez aurkeztutako merezimenduei buruzko dokumenturik.

Eskabidea Internet bidez bete behar denez, gomendatzen da behar besteko aurrerapenaz betetzen hastea, eskatzaileak zailtasunak baditu ere.

Parte hartzeko baldintza guztiak –agindu honen seigarren oinarrian ezarritakoa alde batera utzi gabe–, bai eta alegatutako merezimenduak ere, eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunean bete beharko dira, eta esleitutako lanpostuaz jabetu arte bete.

2.– Dokumentuak aurkezteko tokia:

Betekizunak eta merezimenduak Interneteko helbide honetan aurkeztu behar dira: <https://hezigunea.euskadi.eus> (NAN/AIZ + pasahitza edo XLNets-en erabiltzaileak), "Eremu pertsonala – Izapideak langileen sailarekin – Ikuskatzaileen lekualdatze-lehiaketa – Onartzeko eskabidea". Baremoa ezartzea nahi duzun atal bakoitzari dagokion dokumentazioa aurkeztu beharko duzu, eta, azkenik, "Dokumentazioa entregatzen amaitzea eta erregistratzea" sakatu behar duzu, <https://hezigunea.euskadi.eus> gunean. Dokumentuak ataletan sartzen badira baina prozesua «dokumentazioa entregatzen amaitu eta erregistratu» atalean klik eginda amaitzen ez bada, ez dela dokumentaziorik aurkeztu iritziko zaio. Edonola ere, betekizunak eta merezimenduak entregatzeko aurreikusitako aplikazio informatikoan zehaztuko diren jarraibideak bete beharko dira.

VII. KAPITULUA

MEREZIMENDUEN BAREMOA APLIKATZEA

Hamahirugarrena.– Merezimenduen baremoa aplikatzeaz arduratuko diren unitate eta organoak.

1.– Lehiakideek adierazi dituzten merezimenduak ebaluatzeko, puntuazioen baremoko 3. eta 4.1 apartatuei dagokienez, batzorde barematzaile bat izendatuko du Hezkuntza Saileko Langileak Kudeatzeko zuzendariak. Batzorde horren kontrako oinarri sendoko arrazoirik ez bada adierazten, gizonek zein emakumeek gutxienez % 40ko ordezkari izango dute, 1/2023 Legegintzako Dekretuaren 21. artikuluan xedatutakoaren arabera (1/2023 Legegintzako Dekretua, martxoaren 16koa, Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistatik gabeko bizitzetarako Legearen testu bategina onartzen duena).

Kide hauek osatuko dute Batzorde Barematzailea:

Batzordeburua: Hezkuntzako Ikuskatzaileen Kidegoko edo Hezkuntza Administrazioaren Zerbitzura dauden Ikuskatzaileen Kidegoko funtzionario bat.

Bokalak: Hezkuntzako Ikuskatzaileen Kidegoko edo Hezkuntza Administrazioaren Zerbitzura dauden Ikuskatzaileen Kidegoko lau funtzionario, jardunean daudenak.

Langileak Kudeatzeko zuzendariak izendatuko ditu Batzorde Barematzaileko burua eta bokalak. Hark izendatuko du idazkari-lanak egingo dituen ere, izendatutako bokalen artetik batzordeburuak proposatutakoa.

Ordezkaritza handiena duten sindikatuak ordezkari bat izendatu ahal izango dute batzorde bakoitzean, begirale-lanak egiteko.

Batzorde Barematzailekoak izendatzeko irizpide berberei jarraituz izendatu ahal izango dira ordezeko batzordekideak. Batzorde Barematzailearen funtzionamendua Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legean ezarritakoari lotuko zaio, eta lege horren 23. eta 24. artikuluetan abstentzioari eta errefusatzeari buruz ezarritako arauak aplikatuko zaizkie batzordekideei.

Langileak Kudeatzeko zuzendariak gaian espezialistak diren bi aholkulari sartu ahalko ditu hala egitea beharrezkoa dela iritzitako batzordearen bileretan.

Otsailaren 2ko 16/1993 Dekretuak (26ko EHAA) 6. eta 16. artikuluetan xedatzen duenari jarraituz, ekainaren 13ko 121/2006 Dekretuan (28ko EHAA) xedatuaren arabera ordainduko dira bidaia-gastuei dagozkien kalte-ordainak (121/2006 Dekretua, ekainaren 13koa, aipatutako 16/1993 dekretu hori hirugarren aldiz aldatzekoa, zeinaz eguneratzen baitira zerbitzuarengatik eman behar diren kalte-ordainen zenbatekoak bazkariei eta bidaiei dagokienez).

Batzorde Barematzailearen osaera Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Sailaren webgunean (<http://www.euskadi.eus/eusko-jaurilaritza/hezkuntza-saila>) eta <https://hezigunea.euskadi.eus> webgunean argitaratuko da.

2.– Baremoaren gainerako apartatuetatik lehiakideei dagokien puntuazioa dagokien administrazio-unitateek esleituko dute, eta Batzorde Barematzaileak eskuordetuta jardungo dute. Batzordeak hartuko ditu erabakiak baremoa garatu bitartean planteatzen diren gai guztietan.

VIII. KAPITULUA

PROZEDURAN ONARTUA IZATEARI ETA PUNTUAZIOA EMATEARI BURUZKO
EBAZPENAK

Hamalagarrena.– Onartuen, baztertuen eta puntuazioaren behin-behineko ebazpena.

1.– Langileak Kudeatzeko Zuzendaritzan Batzorde Barematzailearen aktak eta langile-unitateek barematzen dituzten merezimenduei esleitutako puntuazioa jaso ostean, ebazpena emango du Langileak Kudeatzeko zuzendariak, eta behin-behinean onetsiko dira onartutako eta baztertutako parte-hartzaileen zerrendak; azken kasu horretan, baztertzeko arrazoia zein den adieraziko du. Gainera, baremoko apartatu bakoitzean onartutako parte-hartzaileei emandako puntuazioa jakinaraziko du.

Ebazpena eta behin-behineko zerrendak, interesdunei jakinarazte aldera, sail honen Interneteko helbidean emango dira argitara: <https://hezigunea.euskadi.eus> –Langileen arloa - Izapideak langileekin - Ikuskatzaileen lekualdatze-lehiaketa.

Era berean, aipatutako behin-behineko zerrenda horiekin batera, lehiakide bakoitzak parte-hartzailearen fitxa jasoko du, eta parte hartzen duen pertsonalaren eskura egongo da Langileak Kudeatzeko zuzendariaren aipatutako ebazpenean ezartzen den epean. Han, ikusgai jarriko dira parte-hartzaile bakoitzaren identifikazio-datuak, parte-hartzea, merezimenduak eta eskatutako lanpostuak.

2.– Lehiatzen diren pertsonak erreklamazioak aurkeztu ahal izango dituzte Langileak Kudeatzeko zuzendariaren behin-behineko ebazpen horren aurka, ebazpen horretarako adierazten diren lekuetan, hamar egun balioduneko epean, ebazpena adierazitako Interneteko helbidean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Interesdunak ez badu zuzentzen baztertzeko arrazoi izan den akatsa edo ez baditu beste akats batzuk zuzentzen adierazitako epean, eskaeran atzera egin duela iritziko zaio, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 68. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik.

Hamabosgarrena.– Onartuen, baztertuen eta puntuazioaren behin betiko ebazpena.

1.– Aurkeztutako erreklamazioak aztertuta, Langileak Kudeatzeko zuzendariak ebazpena emango du, onartutako eta baztertutako parte-hartzaileen zerrendak behin betiko onesteko; azken kasu horretan, baztertzeko arrazoia zein den adieraziko du. Gainera, onartutako parte-hartzaileei baremoko apartatu bakoitzean emandako puntuazioa ere jakinaraziko du.

2.– Behin betiko ebazpen horren aurka, interesdunek gora jotzeko errekurtsioa aurkeztu ahal izango diote sail honetako Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordeari, hilabeteko epean, ebazpena Interneten argitaratu eta hurrengo egunetik hasita, lehen aipatutako Interneteko helbidean.

IX. KAPITULUA

DESTINOAK ESLEITZEA, UKO EGITEA ETA LANPOSTUAZ JABETZEA

Hamaseigarrena.– Destinoak behin-behinean esleitzea.

1.– Eskainitako lanpostu hutsen eta, hala badagokio, hutsik geratu direnen behin-behineko esleipena hurrenkera honen arabera egingo da:

a) Lehenik, bederatzigarren oinarrian zerrendatutako kasuetan, herri edo barruti baterako lehentasun-eskubideari dagozkionak, eta, kasu bakoitzaren barruan, aipatutako baremoa aplikatuz lortutako puntuazio handienak emango du lehentasun-ordena. Eskubide hori baliatzen den herri edo barrutian plaza huts nahikorik ez badago eskatzen duten lehiakide guztientzat, bakoitzaren puntuazioa gorabehera, plaza hutsetako bat bermatuko zaio lehentasunezko eskubidea duen parte-hartzaileari, eta, beraz, parte-hartzaileak lehentasuna izango du destinoa lortzeko puntuazio handiagoa duen parte-hartzaile baten aurretik. Hala eta guztiz ere, ikastetxe jakin bat esleitzeko lehentasun-eskubidea dela-eta herria edo barrutia eta espezialitatea bermatuta, eskubide hori baliatzen duen parte-hartzailea bere kidego eta espezialitate bereko gainerako parte-hartzaileekin lehiatuko da, merezimenduen baremoaren arabera emandako puntuazioari jarraikiz.

b) Bigarrenik, gainerako parte-hartzaileen eskaerak esleituko dira, praktiketako funtzionarioenak izan ezik, eta plazak esleitzeko lehentasun-hurrenkera merezimenduen baremoa aplikatuta lortutako puntuazio handienak emango du.

c) Aipatutako esleipenak egin ondoren, praktiketako funtzionarioei esleituko zaie destinoa, praktiketako funtzionario izendapenean agertzen diren ordena kontuan hartuta.

d) Aipatutako esleipenak egin ondoren, destinoa esleituko zaie praktiketako funtzionarioei, praktiketako funtzionario izendatzean duten hurrenkera kontuan hartuta.

2.– Deialdia aurreko lehentasun-hurrenkeraren arabera ebatziko da, lehentasun-eskubidea baliatzen dutenei plaza jakin bat esleitzea alde batera utzi gabe, deialdi honen bederatzigarren oinarrian ezarritakoaren arabera.

4.– Puntuazioen guztizkoan berdinketarik gertatuz gero, baremoaren atal bakoitzean puntuaziorik handiena zein den hartuko da kontuan hurrenez hurren, bertan agertzen diren ordenaren arabera.

Berdinketak jarraitzen badu, azpiataletan lortutako puntuazioa hartuko da kontuan, baremoan agertzen diren hurrenkeraren arabera.

Bi kasuetan, atal bakoitzean kontuan hartzen den puntuazioak ezin izango du gainditu atal bakoitzerako baremoan ezarritako gehieneko puntuazioa, ezta, azpiatalen kasuan, atal bakoitzari dagokion gehieneko puntuazioa ere. Irizpide horiek aplikatzean, azpiatal batek edo batzuek dagokien atalari emandako gehieneko puntuazioa lortzen dutenean, ez dira kontuan hartuko gainerako azpiatalen puntuazioak.

Beharrezkoa izanez gero, dagokion kidegoan sartzeko hautaketa-prozeduraren deialdia egin zen urtea erabiliko da berdinketa hausteko irizpide gisa, eta, horren barruan, hautatua izateko lortutako puntuazioa.

Hamazazpigarrena.– Erreklamazioak eta uko-egiteak.

Lehiakideek behin-behineko esleipena dela-eta erreklamazioak aurkeztu ahalko dituzte, esleipen hori Hezkuntza Sailaren Interneteko helbidean (<https://hezigunea.euskadi.eus>) argitaratu eta biharamunetik aurrera bost egun baliodun igaro baino lehen. Lehiakide boluntarioek, epe horretan bertan, lekualdatze-lehiaketan parte hartzeari uko egin diezaioke, eta ukoa parte hartzeko eskabidean idatzitako eskaera guztiei dagokiela iritziko zaio. Tramitagune izango da aurkezpen-lekua.

Horren ondorioetarako, kontuan izan behar da behin-behineko ebazpenean destinatorik ez lortzeak ez duela esan nahi behin betiko ebazpenean lortuko ez denik. Era berean, behin-behineko esleipenean destinoa lortu izanak ez du esan nahi behin betiko esleipenean destinoa lortuko denik edo behin-behineko esleipenean lortutako destino bera mantenduko denik.

Hemezortzigarrena.– Lanpostu hutsen behin betiko esleipena.

1.– Aurreko oinarrian aipatzen diren erreklamazioak eta ukoak aztertu eta ebatzi ondoren, destinoen behin betiko esleipena onartzen duen agindua emango du Hezkuntzako sailburuak. Agindu hori Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da, eta bertan iragarriko dira lehiaketako destinoen behin betiko esleipena jasotzen duten zerrendak jendaurrean jartzeko eguna eta lekuak.

2.– Destinoa esleitzeko, hamaseigarren oinarriko 1. apartatuan ezartzen den plaza hutsak esleitzeko hurrenkerari jarraituko zaio, onartutako merezimenduen eta eskaeren arabera.

3.– Lekualdatze-lehiaketako destinoen behin betiko esleipenaren aurkako errekurtsioak, alde batera utzita lehiaketan zer hezkuntza-administrazioen bitartez parte hartu den, errekurtsioen xede den lanpostua zer hezkuntza-administrazioan dagoen, hezkuntza-administrazio horri zuzendu behar zaizkio, eta hark ebatzi behar ditu. Errekurtsioak Tramitagune plataformaren bidez aurkeztu beharko dira.

Hemeretzigarrena.– Zerbitzu aktibora itzultzea.

Eszedentzian dauden eta lehiaketaren ondorioz zerbitzu aktibora itzultzen diren ikuskatzaileek dokumentu hauek aurkeztu beharko dituzte dagokien Hezkuntzako lurralde-ordezkaritzan (esleitutako destinoa dagoen lurraldearen arabera):

1.– Eszedentziarako aginduaren kopia.

2.– Irakaskuntzarekin bateraezina den gabezia edo gaixotasun fisiko edo psikikorik ez duela adierazten duen osasun-ziurtagiri ofiziala.

3.– Zinpeko aitortpena edo hitzematea, adierazten duena ez dagoela bereizita Estatuko, tokiko edo Autonomia Erkidegoko Administrazioaren inongo kidegotatik diziiplina-espedientearen arabera eta ez dagoela funtzio publikoetan jarduteko desgaituta.

Hala ere, lehiaketa honetan destinoa lortu duten baina irakasleen beste kidego batean zerbitzu aktiboan dauden horiek ez dituzte aurkeztu beharko aipatutako dokumentuak.

Nolanahi ere, hurrengo oinarrian adierazitako jabetze-eguna baino lehen aurkeztu beharko dira agiriak.

Hogeigarrena.– Betekizunen eta merezimenduen epea.

Deialdi honetan eskatzen diren betekizun guztiak eta II. eranskineko merezimenduak, ofizioz alegatu edo barematu daitezkeenak, beteta edo onartuta egon behar dira eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunean, eta esleitutako destinoaz jabetu arte mantendu behar dira, salbuespen hauekin:

- Ikasturte honen amaiera erreferentziazat hartzen duten parte-hartzeen kasuak (seigarren oinarria, 1.1 puntua).
- Praktikak gainditu dituen eta karrerako funtzionario izendatu duten eguna (zortzigarren oinarria).

Hogeita batgarrena.– Lanpostuaz jabetzea.

Destino berriez jabetzeko eguna 2025eko irailaren 1a izango da, eta aurreko destinoetako kargua uztekoa, berriz, 2025eko abuztuaren 31.

Hogeita bigarrena.– Destinoen ukaezintasuna.

Lehiaketaren behin betiko ebazpenean esleitutako destinoei ezin izango zaie uko egin.

Hogeita hirugarrena.– Ordainsariak.

Destinoa lortzen duten eremuari dagozkion ordainketa-arauen arabera jasoko dute ordainsaria oinarri hauen babespean araututako deialdiaren bidez euren jatorriko postuarenaz bestelako kudeaketa-eremu batean behin betiko destinoa lortu duten funtzionarioek.

X. KAPITULUA

DATU PERTSONALAK

Hogeita laugarrena.– Datu pertsonalen tratamendua.

Parte-hartzaileek aurkeztutako datuak dagokien prozeduran edo jarduketan aurreikusitako xedeetarako baino ez dira erabiliko.

Datu horiek tratamendu-jardueren erregistroan tratatuko dira eta «Hautaketa- eta hornikuntza-prozesuak» izeneko tratamendu-jardueran sartuko dira. Jarduera horren arduraduna Hezkuntza Saileko Langileriaren Kudeaketa Zuzendaritza da, hornidura-prozedura honen kudeaketatik eratorritako administrazio-izapideak egiteko eta aplikatzekoak diren legezko betebeharrak betetzeko behar den tratamendua egiteko.

Hala badagokio, Estatuko Administrazioako organo eskudunei, Euskal Autonomia Erkidegoko beste organo batzuei, sindikatuei eta langileen batzordeei laga ahal izango zaizkie datuak.

Bai datu pertsonalen tratamendua, bai datu horiek hirugarrenei lagatzea, bai datu horiek eskuratzeko, zuzentzeko, ezabatzeko, aurkaratzeko eta eramangarriak izateko eskubideak honako hauek xedatutakoaren arabera arautuko dira: Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoa (2018ko abenduaren 6ko BOE); (EB) 2016/679 Erregelamendu Orokorra, Datuak Babestekoa, eta aplikatzekoa den gainerako araudia.

I. ERANSKINA

Kodea	Ikastetxearen izena
-------	---------------------

01006186 Arabako Hezkuntza Ikuskaritza

48015803 Bizkaiko Hezkuntza Ikuskaritza
Gipuzkoako Hezkuntza Ikuskaritza:

20012602 Lantokia: Donostia

20012614 Lantokia: Eibar

II. ERANSKINA

MEREZIMENDUEN BAREMOA

Merezimenduak	Balorazioa	Egiaztagiria
<p>1.– Antzintasuna.</p> <p>1.1.– Probintziako plantilla berean edo, bestela, hezkuntzako ikuskaritza antolatuta dagoen lurralde-unitateetan behin betiko destinoarekin karrerako funtzionario gisa aritutako etengabeko iraunaldiaren urte bakoitzeko.</p> <p>Lehen eta bigarren urteak:</p> <p>Urte-zatiak honela zenbatuko dira: 0,1666 puntu hilabete osoko</p> <p>Hirugarren urtea:</p> <p>Urte-zatiak honela zenbatuko dira: 0,3333 puntu hilabete osoko</p> <p>Laugarren urtea eta hurrengoak :.....</p> <p>Urte-zatiak honela zenbatuko dira: 0,5000 puntu hilabete osoko</p>	<p>2,0000 puntu urteko.</p> <p>4,0000 puntu</p> <p>6,0000 puntu urteko.</p>	<p>Hezkuntza Administrazio eskudunak emandako zerbitzu-orria, edo administrazio-titulua edo karrerako funtzionario izendatu zutenetik izandako jabetza eta kargu-uzteen izapideen egiaztagiria, edo, kasua bada, langileen erregistroetan izena eman izanaren agiriei dagozkienak.</p> <p>** Ofizioz zenbatuko dira Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Saileko Langileen Erregistroan jasota dauden emandako zerbitzuak.</p>
<p>Epai bat betetzeko edo errekurtsio baten ebazpenaren ondorioz behin betiko destinoa galdu dutelako, derrigorrezko eszedentziatik datozeelako edo beren plaza espresuki behin betiko ezabatu delako lehiaketan parte hartzera behartuta dauden langile funtzionarioen kasuan, azpialar honetan adierazten diren zerbitzuak zehazteko helburuarekin, azkena izan duen behin betiko lanpostua izango da parte hartzeko baliatzen duen postua, eta, hala badagokio, horri gehituko zaizkio gozotik hezkuntza-ikuskaritzako edozein lanpostutan behin-behineko emandako zerbitzuak.</p> <p>Era berean, irizpide berberak ezarriko zaizkie zigorra betetzeko esleitutako destinotik edo nahitaezko lekualdaketarekin herriz aldatzera behartuta esleitutako destinotik parte hartzen duten funtzionarioei.</p>		
<p>1.2.– Karrerako funtzionario gisa aldi baterako egindako urte bakoitzeko:</p> <p>Urte-zatiak honela zenbatuko dira: 0,1666 puntu hilabete osoko.</p> <p>Langile horiek lehiaketa bidez lortutako behin betiko lehenengo destinotik borondatez parte hartzen dutenean, 1.1 azpialari dagokion puntuazioari azpialar honetan lortutakoa gehituko zaio.</p>	<p>2,0000 puntu</p>	<p>Hezkuntza Administrazio eskudunak emandako zerbitzu-orria edo administrazio-titulua edo karrerako funtzionario izendatu zutenetik izandako jabetza eta kargu-uzteen izapideen egiaztagiria, edo, kasua bada, langileen erregistroetan izena eman izanaren agiriei dagozkienak.</p> <p>** Ofizioz zenbatuko dira Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Saileko Langileen Erregistroan jasota dauden emandako zerbitzuak.</p>

Merezimenduak	Balorazioa	Egiaztagiriak
<p>1.3.– Antzinatasuna kidegoan.</p> <p>1.3.1.– Hezkuntzako Ikuskarien Kidegoan edo Hezkuntzako Administrazioaren Zerbitzura diharduten Ikuskarien Kidegoan karrerako langile funtzionario gisara jarduneko zerbitzuan emandako urte bakoitzeko:</p> <p>Urte-zatiak honela zenbatuko dira: 0,1666 puntu hilabete osoko</p> <p>Kidego horietan igarotako denbora zehazteko, jatorrizko Ikuskarien kidegoetan karrerako funtzionario gisara emandako zerbitzuak aitortuko dira, baita irakasle gisara ikuskaritzara igaro ondoren emandako zerbitzuak ere, Funtzio Publikoaren Erreformatarako Arauen abuztuaren 2ko 30/1984 Legearen hamabosgarren xedapen osagarriak diogenaren arabera.</p> <p>1.3.2.– HLOk aipatzen dituen beste irakasle-kidego batzuetan karrerako funtzionario gisa jarduneko egoerako benetako zerbitzuetan egindako urte bakoitzeko:</p> <p>Urte-zatiak honela zenbatuko dira: 0,0833 puntu hilabete osoko</p>	<p>2,0000 puntu</p> <p>1,0000 puntu</p>	<p>Hezkuntza Administrazio eskudunak emandako zerbitzu-orria, edo administrazio-titulua edo karrerako funtzionario izendatu zutenetik izandako jabetza eta kargu-uzteen izapideen egiaztagiria, edo, kasua bada, langileen erregistroetan izena eman izanaren agiriei dagozkienak.</p> <p>** Ofizios zenbatuko dira Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Saileko Langileen Erregistroan jasota dauden emandako zerbitzuak.</p>
<p>1.3.2 azpiatalean aipatutako zerbitzuak ez dira kontuan hartuko 1.1 edo 1.2 azpiataletako zerbitzuekin batera eman diren urteetan.</p> <p>1.1, 1.2, 1.3.1 eta 1.3.2 azpiataletan aurreikusitako ondorioetarako, zerbitzu berezietan egin diren zerbitzuak kontuan hartuko dira horrelakotzat beren-beregi deklaratu badira Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bateginaren 87. artikuluan aurreikusitako apartatuetan (testu bategin hori urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartu zen). Aipatutako lege horren aurreko xedapenek ezarritako egoera berdina ere kontuan hartuko dira. Era berean, ondorio horietarako, ahaideak zaintzeko hartutako eszedentziaren denbora ere kontuan hartuko da, urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 87. artikulua arabera, eta denbora hori ezingo da hiru urtetik gorakoa izan.</p>		
<p>2.– Merezimendu akademikoak:</p> <p>Atal honetan baloratu ahal izateko, Espainiako Estatuan balio ofiziala duten unibertsitate-tituluak soilik hartuko dira kontuan. (Ikusi bigarren xedapen osagarria)</p> <p>2.1.– Doktoretza, graduondokoak eta aparteko sariak:</p> <p>2.1.1.– Doktore-titulua:</p>	<p>10 puntu, gehienez.</p> <p>6,0000 puntu</p>	<p>Tituluaren kopia, edo titulua emateko eskubideak ordaindu izanaren egiaztagiria, edo titulazioaren ziurtagiri osagarria, hala badagokio, Unibertsitate-titulu ofizialak emateari buruzko urtarilaren 23ko 185/1985 eta azaroaren 6ko 1496/1987 errege-dekretuak aplikatzeko 1988ko uztailaren 8ko Aginduan (13ko BOE) edo 2007ko abuztuaren 13ko ECI/2514/2007 Aginduan (21eko BOE) edo Unibertsitate-titulu ofizialak emateari buruzko abuztuaren 5eko 1002/2010 Errege Dekretuan (abuztuaren 6ko BOE) aurreikusitakoaren arabera.</p>

Merezimenduak	Balorazioa	Egiaztagiria
2.1.1.– Doktore-titulua:		** Ofizioz zenbatuko da doktorearen unibertsitate-titulu ofiziala (baldin eta Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Saileko Langileen Erregistroan badago).
<p>2.1.2.– Irakaskuntzako funtzio publikoan sartzeko eskatutakoa ez den Masterreko edo Arte Irakaskuntzetako unibertsitate-titulu ofizial bakoitzeko, baldin eta titulu hori lortzeko gutxienez 60 kreditu eskatu badira.</p> <p>Inola ere ez da baloratuko unibertsitateko master-titulu ofiziala edo irakaskuntzako funtzio publikoan sartzeko prestakuntza pedagogikoa eta didaktikoa egiaztatzen duen prestakuntza baliokidea, ikuskatzaileen kidegoan sartzeko jatorrizko kidegoa edozein dela ere.</p> <p>Merezimendu hori ez da baloratuko doktore-titulua alegatu bada, salbu eta doktoregoan sartzeko baldintza gisa erabili ez dela egiaztatzen bada.</p>	3,0000 puntu	<p>Tituluaren kopia, edo titulu emateko eskubideak ordaindu izanaren egiaztagiria, edo titulazioaren ziurtagiri osagarria, hala badagokio, Unibertsitate-titulu ofizialak emateari buruzko urtarrilaren 23ko 185/1985 eta azaroaren 6ko 1496/1987 errege-dekretuak aplikatzeko 1988ko uztailaren 8ko Aginduan (13ko BOE) edo 2007ko abuztuaren 13ko ECI/2514/2007 Aginduan (21eko BOE) edo Unibertsitate-titulu ofizialak emateari buruzko abuztuaren 5eko 1002/2010 Errege Dekretuan (abuztuaren 6ko BOE) aurreikusitakoaren arabera.</p> <p>** Ofizioz zenbatuko da master unibertsitate-titulu ofiziala (baldin eta Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Saileko Langileen Erregistroan badago).</p>
<p>2.1.3.– Ikerketa-nahikotasunaren aitorten bakoitzeko edo ikasketa aurreratuak egiaztatzen dituen ziurtagiri-diploma bakoitzeko:</p> <p>Merezimendu hori ez da baloratuko, doktore-titulua alegatzen bada:</p>	2,0000 puntu	Dagokion ziurtagiri-diplomaren kopia
<p>2.1.4.– Doktoretzan, lizentzian edo graduan aparteko saria lortzeagatik, edo goi-mailako arte-irakaskuntzetan graduan aparteko saria lortzeagatik edo goi-mailako arte-irakaskuntzak ematen dituzten kontserbatorioek eta eskolek emandako titulazioen kasuan ohorezko aipamena jasotzeagatik.</p>	1,0000 puntu	Hori egiaztatuko duen agiriaren kopia.
<p>2.2.– Goi-mailako beste titulazio batzuk:</p> <p>Izaera ofizialeko unibertsitate-titulazioak honela baloratuko dira, lehiaketan parte hartzeko aukeratutako kidegoan sartzeko edo hezkuntza ikuskaritzetako lanpostuetarako baldintza gisa oro har eskatu ez badira:</p> <p>2.2.1.– Gradu-titulazioak:</p> <p>Goi-mailako arte-irakaskuntzetako gradu bakoitzeko edo graduko unibertsitate-titulu ofizial bakoitzeko, kidegoan sartzeko oro har eskatzen dena ez bada.</p> <p>Gradu-titulua unibertsitateko edo goi-mailako arte-irakaskuntzako beste titulazio batzuen bidez lortzen bada, eta titulu hori osatzen duten ikasketa guztiak egin ez badira, 2,500 punturekin baloratuko da.</p> <p>Titulu berean dauden aipamen edo espezialitateak ez dira titulu desberdintzat hartuko.</p>	5,0000 puntu	<p>2.1.1 azpiataleko merezimendua justifikatzeko adierazten den justifikazio-dokumentazio bera eta ziurtagiri akademikoa, graduko titulu bakoitza osatzen duten irakaskuntza guztiak egin direla jasotzen duena.</p> <p>Ofizioz zenbatuko dira Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Saileko Langileen Erregistroan ageri diren gradu-tituluak, 2,5000 puntuko puntuazioarekin, salbu eta titulu horien ziurtagiri akademikoa aurkezten bada, non titulu horiek osatzen dituzten irakaskuntza guztiak egin direla jasotzen den</p> <p>Lizentziadun-, ingeniari- edo arkitekto-titulua aurkeztuz gero, bigarren zikloko titulazioari dagokion puntuazioa baino ez da aitortuko.</p>

Merezimenduak	Balorazioa	Egiaztatgiriak
<p>2.2.2.– Lehen zikloko titulazioak:</p> <p>Bigarren eta gainerako diploma, ingeniari tekniko eta arkitektura teknikoengatik edo legez horien baliokidetzat jotako tituluengatik eta lizentzia, arkitektura edo ingeniariaren baten lehen zikloari dagozkion ikasketengatik:</p> <p>Izaera horretako tituluek edo ikasketek ez dute inondik inora azpiatal honetako baloraziorik jasoko, izangaiak aurkeztutako lizentzia, ingeniari tekniko, arkitektura edo gradurako lehenengo titulua lortzeko gainditu behar izan diren tituluak edo ikasketak direnean, irakaskuntzaren ondorioetarako baliokidetzat jotako titulazio baten bidez kidegoan sartu izana alde batera utzita.</p> <p>Ez dira merezimendu gisa aurkeztutako ziklo luzeko beste titulazio akademiko batzuk lortzeko beharrezko diren lehen zikloak baloratuko.</p>	3,000 puntu	<p>Lizentzia, arkitektura edo ingeniariaren lehen zikloari dagozkion ikasketen balorazioa egiteko, aipatutako titulu edo zikloak lortzeko behar diren irakasgai edo kreditu guztiak gainditu direla berariaz adierazten duen egiaztatgiri aurkeztu beharko da.</p> <p>Ondorioz, lizentzia, ingeniari tekniko edo arkitektura titulua bakarrik aurkezteak ez du ekarriko bigarren zikloko tituluari dagokion puntuazioa aitortzea.</p>
<p>2.2.3.– Bigarren zikloko titulazioak:</p> <p>Lizentziatutako, ingeniari tekniko edo arkitekturetako bigarren zikloko ikasketengatik, edo legez baliokide deklaraturako beste titulu baliokide batzuek:</p> <p>Izaera horretako tituluek edo ikasketek ez dute inondik inora azpiatal honetako baloraziorik jasoko aurkeztutako lizentzia, ingeniari tekniko edo arkitekturaren lehen titulua lortzeko gainditu behar izan badituzte (lehen zikloa, bigarren zikloa, edo, hala badagokio, irakaskuntza osagarriak), irakaskuntzaren ondorioetarako baliokidetzat jotako titulazio baten bidez kidegoan sartu izana gorabehera.</p> <p>Bigarren zikloa soilik duten titulazioak eta, ondorio guztietarako, lizentziaren unibertsitate-tituluarekiko baliokide gisa onartutako tituluak bigarren ziklo gisa soilik baloratuko dira.</p> <p>Ez dira titulu diferentzetan hartuko titulazio berean oinarritzen diren aipamenak eta espezialitateak.</p>	3,000 puntu	<p>** Ofizioz zenbatuko dira Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Saileko Langileen Erregistroan jasotako diplomak, ingeniari teknikoak eta arkitektura teknikoak, A1 azpiataleko irakasle funtzionarioek lizentziadunaren, ingeniariaren edo arkitektoaren lehen titulua lortzeko gainditu behar izan direnean izan ezik.</p> <p>** Ofizioz zenbatuko dira lizentziak, ingeniari teknikoak eta arkitekturetako (baldin eta Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Saileko Langileen Erregistroan badaude).</p>
<p>2.3.- Lanbide-heziketako irakaskuntzen, arte- eta kirol-irakaskuntza profesionalen eta hizkuntzen irakaskuntzen titulazio ofizialak:</p> <p>Hizkuntza-eskola ofizialek, musika kontserbatorio profesionalak eta goi-mailakoak eta arte-eskolek ematen dituzten Araubide Bereziko Irakaskuntzen tituluak, bai eta Lanbide Heziketakoak ere, baldin eta irakaskuntzako funtzio publikoan sartzeko betekizun gisa alegatu ez badira edo, hala badagokio, alegatutako titulua eskuratzeko beharrezkoak izan ez badira, honela baloratuko dira:</p>		<p>Hizkuntza-eskola ofizialeko ziurtagiriak edo musika- edo dantza-titulu profesional bakoitzeko edo Lanbide Heziketako titulu profesional bakoitzeko:</p> <p>Ziurtagiriaren edo tituluaren fotokopia edo, hala badagokio, titulu hori igorrita dagoela ziurtatzen duen egiaztatgiri edo bera lortzeko beharrezko diren ikasketak guztiak gainditu direla ziurtatzen duen egiaztatgiri.</p>

Merezimenduak	Balorazioa	Egiaztagiriak
<p>a) Europako Kontseiluko C2 mailaren ziurtagiri bakoitzeko:</p> <p>b) Europako Kontseiluko C1 mailaren ziurtagiri bakoitzeko:</p> <p>c) Europako Kontseiluko B2 mailaren ziurtagiri bakoitzeko:</p> <p>d) Europako Kontseiluko B1 mailaren ziurtagiri bakoitzeko:</p> <p>Aurreko apartatuetan adierazitako egiaztagiriak baloratu behar direnean, parte-hartzaileak hizkuntza bakoitzeko aurkezten dituen artean maila altuena duena soilik hartuko da kontuan.</p> <p>Atal honetan edo 3. paragrafoan xedatutakoaren arabera egiaztatutako atzerriko hizkuntza baten ezagutza-ziurtagiriak behin bakarrik baloratuko dira atal batean edo bestean. Era berean, atal horietan hizkuntza-gaitasuna hizkuntza berean egiaztatzen duten maila desberdinei buruzko ziurtagiri bat baino gehiago aurkezten badira baloratzeko, ziurtagiri bakar bat baloratuko da atal batean, eta ziurtagiri hori bat etorriko da hizkuntza horren ezagutza-maila altuena egiaztatzen duenarekin.</p> <p>e) Arte Plastikoetako eta Diseinuko goi-mailako teknikariaren titulu, goi-mailako kirol teknikariaren titulu edo Lanbide Heziketako goi-mailako teknikariaren edo horren titulu baliokide bakoitzeko:</p> <p>f) Musika- edo dantza-titulu profesional bakoitzeko:</p>	<p>4,0000 puntu</p> <p>3,0000 puntu</p> <p>2,0000 puntu</p> <p>1,0000 puntu</p> <p>2,0000 puntu</p> <p>2,0000 puntu</p>	<p>** Ofizioz zenbatuko dira Euskal Autonomia Erkidegoko zein autonomia-erkidego honetatik kanpoko hizkuntza-eskola ofizialek edo lanbide-heziketako eskolek emandako ziurtagiriak edo tituluak; autonomia-erkidego honetatik kanpoko kasuan, Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Saileko Langileen Erregistroan jasota egon beharko dute.</p>
<p>3.– Prestakuntza eta hobekuntza.</p> <p>3.1.– Hezkuntza Ministerioak, autonomia-erkidegoetako hezkuntza-alorrean eskumena duten sailek, irabazi asmorik gabeko erakundeek (baldin eta jarduera horiek hezkuntza-administrazioak aitortu eta homologatu baditu) edo unibertsitateek antolatutako jarduerak –ikuskaritza-lana hobetzea helburu dutenak edo irakaskuntzarekin edo eskolako antolaketaekin zerikusia dutenak– gainditzeagatik</p> <p>Egiaztatzen diren jardueretako 10 orduko 0,1000 puntu emango dira. Horretarako, ikastaro guztietako orduak batuko dira; gainerako orduak 10etik beherakoak badira ez dira kontatuko. Ikastaroak kreditutan adierazi badira, kreditu bakoitza 10 ordu direla iritziko zaio.</p>	<p>15 puntu, gehienez.</p> <p>9,0000 puntu, gehienez</p>	<p>Erakunde antolatzaileak emandako ziurtagiriaren kopia, berariaz jardueraren iraupenaren ordu kopurua adierazten duela.</p> <p>Irabazte xederik gabeko erakundeek antolatuetan, gainera, dagokion hezkuntza-administrazioak onartu edo homologatu duela era sinesgarrian egiaztatu beharko da edo hezkuntza-administrazioiko trebakuntza-erregistroan izena eman izanaren ziurtagiria aurkeztu beharko da.</p> <p>** Ofizioz zenbatuko dira Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Sailak antolatutako prestakuntza-jarduerak, bai eta Hezkuntza Sailak homologatutako edo onartutako irabazi-asmorik gabeko erakundeek antolatutakoak ere, baldin eta Hezkuntza Sailaren Prestakuntza Jardueren Erregistroan badaude, EIMA eta NOLEGAREN jarduerak izan ezik, horietan interesdunak jarduera horiek alegatu edo egiaztatu beharko baititu.</p>

Merezimenduak	Balorazioa	Egiaztagiria
<p>3.2.– Hezkuntza Ministerioak, Autonomia Erkidegoetako Hezkuntza Administrazioek, irabazi asmorik gabeko erakundeek (baldin eta jarduera horiek Hezkuntza Administrazioak aitortu eta homologatu baditu) edo unibertsitateek antolatutako jarduerak —ikuskaritza-lana hobetzea helburu dutenak edo irakaskuntzarekin edo eskolako antolaketarekin zerikusia dutenak— emateagatik, zuzentzeagatik eta koordinatzeagatik.</p> <p>Egiaztatzen diren jardueretako 3 orduko 0,1000 puntu emango dira. Horretarako, ikastaro guztietako orduak batuko dira; gainerako orduak 10etik beherakoak badira ez dira kontatuko. Ikastaroak kreditutan adierazi badira, kreditu bakoitza 10 ordu direla iritziko zaio.</p>	4,0000 puntu, gehienez	<p>Erakunde antolatzaileak emandako ziurtagiriaren kopia, berariaz jardueraren iraupenaren ordu kopurua adierazten duela. Irabazi-asmorik gabeko erakundeek antolatuetan, gainera, dagokion hezkuntza-administrazioak onartu edo homologatu duela era sinesgarrian egiaztatu beharko da edo hezkuntza-administrazioari trebakuntza-erregistroan izena eman izanaren ziurtagiria aurkeztu beharko da.</p> <p>** Ofizioz zenbatuko dira Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Sailak antolatutako prestakuntza-jarduerak, bai eta Hezkuntza Sailak homologatutako edo onartutako irabazi-asmorik gabeko erakundeek antolatutakoak ere, baldin eta Hezkuntza Sailaren Prestakuntza Jardueren Erregistroan badaude, EIMA eta NOLEGAREN jarduerak izan ezik, horietan interesdunak jarduera horiek alegatu edo egiaztatu beharko baititu.</p>
<p>3.3.- Hezkuntza-administrazioek gaitasun digitala egiaztatzeko ematen dituzten ziurtagiriak honela baloratuko dira:</p> <p>a) Gaitasun digitaleko A1 maila egiaztatzeagatik.</p> <p>b) Gaitasun digitaleko A2 maila egiaztatzeagatik.</p> <p>c) Gaitasun digitaleko B1 maila egiaztatzeagatik.</p> <p>d) Gaitasun digitaleko B2 maila egiaztatzeagatik.</p> <p>e) Gaitasun digitaleko C1 maila egiaztatzeagatik.</p> <p>f) Gaitasun digitaleko C2 maila egiaztatzeagatik.</p> <p>Irakaskuntzako konpetentzia digitaleko maila bat baino gehiago egiaztatzen direnean, parte-hartzaileak aurkezten duen maila goreneko egiaztapena bakarrik hartuko da kontuan.</p>	<p>3,0000 puntu gehienez</p> <p>0,5000 puntu</p> <p>1,0000 puntu</p> <p>1,5000 puntu</p> <p>2,0000 puntu</p> <p>2,5000 puntu</p> <p>3,0000 puntu</p>	<p>Hezkuntza-administrazio eskudunak emandako egiaztagiria kopia.</p> <p>** Ofizioz zenbatuko da Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Sailak emandako gaitasun digitalaren egiaztapena.</p>
<p>3.4.- Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuaren sailkapenaren arabera atzerriko hizkuntza bateko hizkuntza-gaitasuna egiaztatzen duten atzerriko hizkuntza baten ezagutza-ziurtagiriak honela baloratuko dira:</p> <p>a) Europako Kontseiluko C2 mailaren egiaztagiri bakoitzeko:</p> <p>b) Europako Kontseiluko C1 mailaren egiaztagiri bakoitzeko:</p>	<p>4,0000 puntu</p> <p>3,0000 puntu</p>	<p>Dagokion tituluaren kopia, Hizkuntzen Europako Erreferentzia Esparru Bateratuak sailkatutako atzerriko hizkuntza baten egiaztagiriarekin.</p> <p>** Ofizioz zenbatuko dira Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Saileko Langileen Erregistroan jasota dauden ziurtagiriak/tituluak.</p>

Merezimenduak	Balorazioa	Egiaztagiriak
<p>c) Europako Kontseiluko B2 mailaren egiaztasun bakoitzeko:</p> <p>d) Europako Kontseiluko B1 mailaren egiaztasun bakoitzeko:</p> <p>ACLESek (Asociación de Centros de Lenguas de Educación Superior) onartzen dituen atzerriko hizkuntzen ezagutza-ziurtagiriak baloratuko dira azpiatal honetan, eskabideak aurkezteko epea amaitzen den unean indarrean dagoen ziurtagirien taularen arabera.</p> <p>Atal honetan baloratzeko hizkuntza bereko hizkuntza-gaitasuna egiaztatzen duten zenbait ziurtagiri aurkezten direnean, ziurtagiri bakar bat baloratuko da hizkuntza bakoitzeko, eta ziurtagiri hori maila gorenekoa izango da.</p> <p>Atal honetan edo 2. apartatuan xedatutakoaren arabera egiaztatutako atzerriko hizkuntza baten ezagutza-ziurtagiriak behin bakarrik baloratuko dira atal batean edo bestean. Era berean, atal horietan, hizkuntza bereko hizkuntza-gaitasuna egiaztatzen duten maila bati baino gehiagori buruzko ziurtagiri bat baino gehiago aurkezten badira baloratzeko, ziurtagiri bakar bat baloratuko da atal batean, eta bat etorriko da hizkuntza horren ezagutza-maila altuena egiaztatzen duenarekin.</p>	<p>2,000 puntu</p> <p>1,000 puntu</p>	
<p>4.– Beste merezimendu batzuk:</p> <p>4.1.– Argitalpenak.</p> <p>Zuzenean irakaskuntzarekin erlazionatuta dauden argitalpen didaktiko eta zientifikoengatik.</p> <p>Ez dira baloratuko azaroaren 2ko 2984/1972 Dekretuan (abenduarien 12ko 2063/2008 Errege Dekretuak aldatua) ezarritakoari eutsiz ISBN edo, hala balegokio, ISSN edo ISMN ematera behartuta dauden argitalpenak baina halakorik azaltzen ez dutenak; era berean, ez dira baloratuko egilea eta argitaratzailea pertsona bera diren argitalpenak.</p> <p>Argitalpen horiek baloratzeko, azpiatal hauetan adierazitako egiaztasun bakoitzeko behar dira, bertan adierazten den eran.</p> <p>Apartatu honetan barematu daitezkeen merezimenduei eman dakiekeen berariazko puntuazioa:</p> <p>a) Liburuak, formatu zeinahi dela ere (papera edo elektronikoa):</p> <p>– Egilea:1,000 puntura bitarte</p> <p>– Egilekidea:.....0,5000 puntura bitarte</p>	<p>20 puntu, gehienez.</p> <p>5,000 puntu, gehienez</p>	<p>* Dagozkien ale originalak (ikus aurrerago paperezko dokumentu-eta-irudi salbuespena)</p> <p>* Argitaletxearen ziurtagiria, non honako datu hauek jasoko baitira: liburuaren izenburua, egilea(k), ISBN, lege-gordailua, lehen argitalpenaren data, ale kopurua, eta horien hedapena liburu-denda komertzialetan egin dela.</p> <p>Administrazio publikoek eta unibertsitateek (publikoak nahiz pribatuak) argitaratu eta liburu-denda komertzialetan banatu ez diren liburuei dagokienez, aurreko datuez gain, banaketa-zentroak ere aipatu behar dira ziurtagirian (hezkuntza-zentroak, irakasleen zentroak, kultura-erakundeak, eta abar..).</p> <p>Argitaletxea edo elkarteak desagertu bada, zuzenean onargarria den edozein frogabideren bitartez justifikatu behar dira eskatutako datuak.</p> <p>– Aldizkarien kasuan (paperean, DVDan edo CDan), honako agiri hauek:</p>

Merezimenduak	Balorazioa	Egiaztagiriak
<p>– 3 egile:0,4000 puntura bitarte – 4 egile:0,3000 puntura bitarte – 5 egile:0,2000 puntura bitarte – 5 egile baino gehiago:0,1000 puntura bitarte</p> <p>b) Aldizkariak, formatu zeinahi dela ere (papera edo elektronikoa):</p> <p>– Egilea:0,2000 puntura bitarte – Egilekidea:0,1000 puntura bitarte – 3 egile edo gehiago:0,0500 puntura bitarte</p>		<p>* Dagozkien ale originalak. (ikus aurrerago paperezko dokumentuetarako salbuespena)</p> <p>* Honako hauek adierazten dituen ziurtagiria: ale kopurua, banaketa- eta salmenta-lekuak, edo aldizkariaren zientzia- edo didaktika-elkartea, legez eratur, argitalpenaren izenburua, egilea(k), ISSN edo ISMN, lege-gordailua eta argitalpen-data.</p> <p>Administrazio publikoek eta unibertsitateek (publikoak nahiz pribatuak) argitaratu eta merkataritza-establezimenduetan banatu ez diren aldizkarietarako dagokienez, aurreko datuez gain, banaketa-zentroak ere aipatu behar dira ziurtagirian (hezkuntza-zentroak, irakasleen zentroak, kultura-erakundeak, eta abar..).</p> <p>- Formatu elektronikoa soilik dauden argitalpenen kasuan, txosten bat ere aurkeztu beharko da, baloratuko badira; bertan, erakunde igoerleak ziurtatu beharko du argitalpena dagokion datu-base bibliografikoan agertzen dela. Dokumentu horretan hauek adierazi behar dira: datu-basea, argitalpenaren izenburua, egileak, urtea eta URL helbidea.</p> <p>Paperezko liburuen eta aldizkarien kasuan, jatorrizko aleen aurkezpenaren ordez, pdf fitxategi bat aurkeztu ahal izango da, eta merezimenduen aplikaziora sartu beharko da. Pdf-ak, gutxienez, baloratu beharreko dokumentuaren lehen 10 orrialdeetako azala, ISBN edo ISSN agertzen den orrialdea edo orriak eta egilea edo egileak agertzen diren orrialdea edo orriak izan beharko ditu.</p> <p>Aipatutako txostena aurkeztu ezin bada, erakunde igoerlea desagertu delako edo atzerrian argitaratutako argitalpenak direlako, zuzenbidean onargarri den edozein frogabide erabilita egiaztatu beharko dira txosten horretan eskatzen diren datuak.</p>

Merezimenduak	Balorazioa	Egiaztatzeriak
<p>4.2.– Egindako lanaren balorazioa.</p> <p>4.2.1.– Lanpostu hauetan egindako urte bakoitzeko: Hezkuntzako Ikuskaritzako zuzendariorde orokorra; ikuskari orokorra edo Estatuko Oinarrizko Hezkuntzako, Batxilergoko edo Erdi-mailako Irakaskuntzako Ikuskaritza Nagusiko ikuskari burua; Lanbide Heziketako koordinatzaile nagusia; edo beste hezkuntza-administrazio batzuei dagozkien lanpostu baliokideak:</p> <p>Urte-zatiak honela zenbatuko dira: 0,1250 puntu hilabete osoko</p>	<p>10 puntu, gehienez.</p> <p>1,5000 puntu</p>	<p>Eskuduntzak dituen hezkuntza-administrazioak egindako izendapenaren kopia, jabetze eta kargu-uzteen izapideekin edo, hala badagokio, eskabideak aurkezteko epea bukatzen den egunean karguan jarraitzen duela egiaztatzen duen ziurtagiria.</p> <p>** Ofizioz zenbatuko dira Euskal Autonomia Erkidegoko eta beste erkidego batzuetako ikastetxe publikoetan emandako zuzendaritza-kargu hauek, Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Saileko Langileen Erregistroan jasota badaude.</p>
<p>4.2.2.– Honako lanpostu hauetan egindako urte bakoitzeko: ikuskari nagusia; Estatuko Oinarrizko Hezkuntzako, Batxilergoko edo Erdi-mailako Irakaskuntzako ikuskari nagusia; Lanbide Heziketako koordinatzaile nagusia; Ikuskaritza Nagusiko idazkaria edo administratzailea; Hezkuntzako Ikuskaritzako Zuzendariordetza Nagusiko ikuskatzailea, edo beste hezkuntza-administrazio batzuei dagozkien lanpostu baliokideak:</p> <p>Urte-zatiak honela zenbatuko dira: 0,0833 puntu hilabete osoko</p>	<p>1,0000 puntu</p>	<p>4.2.1 azpiataleko merezimendua justifikatzeko adierazten den justifikazio-dokumentazio bera.</p>
<p>4.2.3.– Honako lanpostu hauetan egindako urte bakoitzeko: Estatuko Oinarrizko Hezkuntzako, Batxilergoko edo Erdi-mailako Irakaskuntzako probintziako ikuskari-buru; Lanbide Heziketako Probintziako koordinazio-buru; Hezkuntzako Ikuskaritza Teknikoko probintziako zerbitzuburu; Sailen buru; edo beste hezkuntza-administrazio batzuei dagozkien lanpostu baliokideak:</p> <p>Urte-zatiak honela zenbatuko dira: 0,0625 puntu hilabete osoko</p>	<p>0,7500 puntu</p>	<p>4.2.1 azpiataleko merezimendua justifikatzeko adierazten den justifikazio-dokumentazio bera.</p>
<p>4.2.4.– Honako lanpostu hauetan egindako urte bakoitzeko: Barrutiko buru; Alboko-buru; sektoreko talde-koordinatzaile; Mugapeko koordinatzaile; edo beste hezkuntza-administrazio batzuei dagozkien lanpostu baliokideak:</p> <p>Urte-zatiak honela zenbatuko dira: 0,0416 puntu hilabete osoko.</p>	<p>0,5000 puntu</p>	<p>4.2.1 azpiataleko merezimendua justifikatzeko adierazten den justifikazio-dokumentazio bera.</p>

2024ko azaroaren 4a, astelehena

Merezimenduak		Balorazioa	Egiaztagiria
<p>4.2.5.– Hezkuntza Administrazio-ko lanpostuetan aritutako zerbitzu-urte bakoitzeko, lanpostu horien destino-osagarria parte hartzeko jatorriko kidegoak daukanaren berdina edo altuagoa denean, baldin eta horiek eranskin honen 4.2.1.etik 4.2.4.erako azpiataletan zerrendatuek bestelakoak badira:</p> <p>Urte-zatiak honela zenbatuko dira: 0,0625 puntu hilabete osoko.</p>		0,7500 puntu	4.2.1 azpiataleko merezimendua justifikatzeko adierazten den justifikazio-dokumentazio bera.
4.2.1 azpiataletik 4.2.5 azpiatalera adierazitako kargu bat baino gehiago batera bete badira, ezingo dira puntu guztiak metatu, eta, beraz, parte-hartzailearentzat abantaila gehien duena hartuko da kontuan.			
<p>4.3.– Bigarren Hezkuntzako, Hizkuntza Eskola Ofizialetako, Musikako eta Arte Eszenikoetako edo Arte Plastiko eta Diseinuko katedradunen kidegoetako karrerako funtzionario izateagatik:</p>		3,000 puntu	<p>Administrazio-tituluaren edo egiaztagiriaren fotokopia edo, hala badagokio, izendapena agertzen den buletin edo agintaritzaren aldizkariarena.</p> <p>Euskal Autonomia Erkidegoko katedradunen kidegoetako kide izatea ofizioz zenbatuko da.</p>
<p>4.4.– Hizkuntza-eskakizuna nahitaezkoa ez den lanpostuetan, euskararen ezagutza merezimendutzat hartuko da (destinoen behin-behineko edo behin betiko esleipenaren unean soilik aplikatu daitezke), eta honela baloratuko da</p>		5,0000 puntu, gehienez.	
Egiaztatutako hizkuntza-eskakizuna	Lanpostuaren hizkuntza-eskakizuna		
	1.HE atzeratua	1. HE betea	2. HE betea
1.HE (B2)	2 puntu	-	-
2.HE (C1)	3 puntu	2 puntu	-
C2	4 puntu	3 puntu	2 puntu
Parte-hartzaileak euskararen hainbat hizkuntza-titulu edo -ziurtagiri aurkezten baditu, maila altuena duena baino ez da kontuan hartuko.			

XEDAPEN OSAGARRIAK

Lehenengoa.–

Parte-hartzaileek aurkezten dituzten merezimenduak beteta edo egiaztatuta izan beharko dituzte eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunean. Beraz, epea amaitzen denean parte-hartzaileek eginiko eta egiaztatutako merezimenduak bakarrik baloratuko dira.

Bigarrena.– Merezimendu akademikoak.

1.– Izaera ofizialeko beste unibertsitate-titulazio batzuetatik puntuazioa lortzeko, parte-hartzaileek dituzten titulu guztien kopiak aurkeztu beharko dituzte, kidegoan sartzeko alegatutakoa barne.

2.– 2.1 ataleko azpiataletan aurkezten diren titulu guztiak baloratuko dira, horietan ezartzen diren irizpideen arabera. Halaber, 2.1.2 azpiatalaren ondorioetarako, doktore-titulua alegatzen denean, ez da baloratuko doktoregora sartzeko baldintza den master ofizialaren titulua.

3.– Lehen zikloko titulazioen baremazioari dagokionez, ez da titulutzat joko egokitze-mailak gainditu izana. 2.2 apartatuan xedatutakoa baloratzeko, ez dira titulu desberdintzat hartuko titulazio berean oinarritzen diren aipamenak.

4.– Tituluak atzerrian lortu badira edo beste herrialde batzuetako hezkuntza-erakundeek emanak badira, gainera, dagokien homologazioa edo dagokien lanbide-kualifikazioaren aitortzea gehitu beharko da.

5.– Irailaren 28ko 822/2021 Errege Dekretuaren 36. artikulua arabera, unibertsitateek beren autonomiaz baliatuz ematen dituzten unibertsitate-titulu ez-ofizialak ez dira barematuko 2.1 eta 2.2 azpiataletan (822/2021 Errege Dekretua, Unibertsitate-ikasketen antolaketa eta kalitatea ziurtatzeko prozedura ezartzen dituen).

2024ko azaroaren 4a, astelehena

III. ERANSKINA

2024-2025EKO LEKUALDATZE-LEHIAKETAN PARTE HARTZEKO ESKABIDEA
HEZKUNTZA-ADMINISTRAZIOKO IKUSKATZAILEEN KIDEGOA ETA
HEZKUNTZAKO IKUSKATZAILEAK

IDENTIFIKAZIOKO DATUAK												
Kidegoa:												
Izena:	NAN: _____											
Lehenengo abizena:												
Bigarren abizena												
Kidegoan sartzeko egin zen hautatze-prozesuaren deialdiko urtea:	Lortutako puntuazioa _____											

JAKINARAZPENETARAKO HELBIDEA					
Kale eta zenbakia:			Posta-kodea:		
Herria:			Telefonoa:		
Helbide elektronikoa:			Telefono mugikorra		

DESTINOAREN DATUAK												
Idatzi X dagokion destinoan	Behin betiko destinoa 2024-2025eko ikasturtean											
	Behin-behineko destinoa 2024-2025eko ikasturtean											
	Bestelako egoera batean, azken behin betiko destinoa											
Plaza:												
Herria:												
Probintzia:												

Zein eratan parte hartzen duzu lehiaketa honetan? Erantzuteko, idatzi X												
	BEHIN BETIKO DESTINOA DUT											
	BORONDATEZKO ESZEDENTZIAN NAGO											
Destinorik ez dudanez, derrigorrean parte hartu behar dut, arrazoi hau dela eta:												
	DIZIPLINAKO ESPEDIENTEA DAKARREN EBAZPEN IRMOA											
	ERREKURTSOA EBATZI EDO EPAIA BETE DA											
	BEHIN BETIKO MODUAN BETETZEN NUEN LANPOSTUA EZABATU EDO ALDATU DA											
	BEHIN BEHINEKO DESTINOAREKIN ITZULI NAIZ LANERA											
	NAHITAEZKO ESZEDENTZIAN NAGO											
	EGINKIZUNAK ETENDA DAUZKAT, ZEHAPENA BETE ETA GERO											
	BEHIN BETIKO MODUAN BETETZEN NUEN LANPOSTUA GALTZEA EKARRI DUTE ANTZEKO ARRAZOIEK											
	KARRERAKO FUNTZIONARIOA, BEHIN BETIKO DESTINOA INOIZ IZAN EZ DUENA											
	HAUTAKETA-PROZEDURA BATEAN HAUTATUA (PRAKTIKETAKO FUNTZIONARIOA / PRAKTIKETATIK SALBUETSIA), ORAINDIK KARRERAKO FUNTZIONARIO IZENDATUA EZ DENA IZAN											

_____ (e)n, 2024ko _____ aren ____ (e)(a).n

INTERESDUNAREN SINADURA

2024ko azaroaren 4a, astelehena

Herri- edo eskualde-lehentasuneko eskubideaz baliatzen direnek betetzeko

Herriaren kodea										
Eskualdearen kodea										

**Lehentasun-hurrenkeraren arabera idatz itzazu eskubide hori erabili nahi duzun lanpostu moten kodeak
Lanpostu motaren kodea + hizkuntzaren kodea (V)**

Hur.	Lanpostu kodea	V
1		

Hur.	Lanpostu kodea	V
2		

Hur.	Lanpostu kodea	V
3		

Hur.	Lanpostu kodea	V
4		

Idatzi X adierazteko zein egoeratan baliatzen zaren eskubide honetaz

<input type="checkbox"/>	Plaza edo postua ezabatu edo aldatu egin da
<input type="checkbox"/>	Administrazioa publikoan beste postu bat betetzearren irakaspostua galdu dut
<input type="checkbox"/>	Borondatezko eszedentzian nago senideak zaintzeko
<input type="checkbox"/>	Administrazio-epaia edo -errekurtsioa dela eta
<input type="checkbox"/>	Ezintasunagatik erretiroa hartu eta gero, lanera itzuli naiz

Bakar-bakarrik bete nahitaez parte hartuz gero

Borondatez eskatutako plazarik edo herririk lortu ezean, egun behin-behinean zerbitzuak ematen dituen lurralde historikoan esleituko zaio, bertan lanpostu hutsik badago.

Adierazi, lehentasun-hurrenkeraren arabera, lurralde historikoen kodeak, postua ofizioz esleitzeko behar izanez gero.

Hur.	Erem.
1	
7	
13	
19	
25	
31	
37	

Hur.	Erem.
2	
8	
14	
20	
26	
32	
38	

Hur.	Erem.
3	
9	
15	
21	
27	
33	
39	

Hur.	Erem.
4	
10	
16	
22	
28	
34	
40	

Hur.	Erem.
5	
11	
17	
23	
29	
35	
41	

Hur.	Erem.
6	
12	
18	
24	
30	
36	

_____ (e)n, 2024ko _____ aren ____ (e)(a)n.

INTERESDUNAREN SINADURA

2024ko azaroaren 4a, astelehena

Eskatutako lanpostuen kodeak										
Ordena- zenbakia.	LANPOSTUA									Hizkuntza
1										
2										
3										
4										
5										
6										
7										
8										
9										
10										
11										
12										
13										
14										
15										
16										
17										
18										
19										
20										
21										
22										
23										
24										
25										
26										
27										
28										
29										
30										
31										
32										
33										
34										
35										
36										
37										
38										
39										
40										
41										
42										
43										
44										
45										
46										
47										
48										
49										
50										
51										
52										
53										
54										
55										
56										
57										
58										
59										
60										

_____ (e)n, 2024ko _____ aren ____ (e)(a)n.

INTERESDUNAREN SINADURA

IV. ERANSKINA

LURRALDEEN ETA HIZKUNTZA-ESKAKIZUNEN KODEAK

LURRALDE HISTORIAKOAK

Lurraldearen kodea	Lurraldearen izena
01	Araba
20	Gipuzkoa
48	Bizkaia

PROBINTZIEN, LURRALDEEN ETA AUTONOMIA-ERKIDEGOEN KODEAK

Erkidegoaren kodea	Erkidegoaren izena	Probintziaren kodea	Probintziaren izena
01	Andaluzia	04	Almería
		11	Cádiz
		14	Kordoba
		18	Granada
		21	Huelva
		23	Jaén
		29	Málaga
		41	Sevilla
02		Aragoi	22
	44		Teruel
	50		Zaragoza
03	Asturias	33	Asturias
04	Balearrak	07	Balearrak
05	Kanariak	35	Las Palmas
		38	Santa Cruz Tenerifekoa
06	Kantabria	39	Kantabria
07	Gaztela eta Leon	05	Ávila
		09	Burgos
07		24	León
		34	Palentzia
		37	Salamanca
		40	Segovia
		42	Soria
		47	Valladolid
		49	Zamora
08	Gaztela-Mantxa	02	Albacete
		13	Ciudad Real
		16	Cuenca
		19	Guadalajara
		45	Toledo
09	Katalunia	08	Bartzelona
		17	Girona

Erkidegoaren kodea	Erkidegoaren izena	Probintziaren kodea	Probintziaren izena
		25	Lleida
		43	Tarragona
10	Extremadura	06	Badajoz
		10	Cáceres
11	Galizia	15	Coruña
		27	Lugo
		32	Ourense
		36	Pontevedra
12	Errioxa	26	Errioxa
13	Madril	28	Madril
14	Murtzia	30	Murtzia
15	Nafarroa	31	Nafarroa
16	Valentzia	03	Alacant
		12	Castelló
		46	Valentzia
17	Euskal Autonomia Erkidegoa	01	Araba
		20	Gipuzkoa
		48	Bizkaia
18	Ceuta	51	Ceuta
19	Melilla	52	Melilla

HIZKUNTZA-ESKAKIZUNA

Hizkuntza-eskakizunaren kodea eskatutako plazaren hizkuntza-eskakizuna eta derrigortasun-data kontuan izanez beteko da, hemen adierazitako moduan. Hala ere, Ikuskaritzako plaza guztiek D hizkuntza-eskakizuna dutela kontuan hartuta, D hizkuntza-eskakizuna da baliozko aukera bakarra.

Kodea	Plazaren ezaugarriak	
	Plazaren hizkuntza-eskakizuna	Plazaren derrigortasun-data
A	1. HE	Amaitua
C	2. HE	Datarik gabe
D	3. HE	Amaitua